

ERE azalpenak

[Gramatika Gaitasuna Lantzen](#), azalpenak eta praktika

[EIBZ. Ere azalpenak eta praktika](#)

[ezer, inor](#)

1. **Esanahia.** También, tampoco... elementu bat gehitzeko erabiltzen da.
2. **Kokapena:** nabarmendu nahi den elementuaren atzean jartzen da.

Beraz, inoiz ez da esaldi bat *ere-rekin hasiko.

*Ere bai esan nahi dut...

Beraz, ez da joango aditz jokatu baten atzean eta puntuaren aurretik:

*Belgikan egon da eta Alemanian egon da ere.

3. **Aditzari begiratu: ea perpausan ageri den:**

Esaldian aditz pertsonala badago,

Antton *ere* etorri da (baiezka)

Alizia *ere* ez da etorri (ezezka)

*Alizia etorri da ere.

Amaiak ere gaur pastelak ekarri ditu. (beste norbaitek ere bai)

Amaiak gaur ere pastelak ekarri ditu. (beste egun batzuetan ere bai)

Amaiak gaur pastelak ere ekarri ditu. (beste gauza batzuk ere bai)

Esaldian aditz pertsonalik ez badago ERE BAI / ERE EZ erabiliko dugu, edo BAITA x ERE / EZTA x ERE.

- *Amaiak ere* ekarri ditu?

- Bai, *Amaiak ERE BAI*. (Aditzaren falta betetzen du BAI horrek)

edo

- Bai, *BAITA Amaiak ERE*.

- *Eta Martzelek?*

- Ez, *Martzelek, ez. Eta nik ERE EZ* edo *EZTA nik ERE*.

Nik banekien hori.

Nik *ere bai* = *baita* nik *ere*.

Nik ez nekien hori.

Nik *ere ez* = *ezta* nik *ere*

Baita X ere. / X ere bai.

Ezta X ere. / X ere ez.

Baieztatzen edo ukatzen dena ez da espreski azaltzen eta aditza ere ez: BAITA. EZTA.

Txomin etorri da? Bai / Ez

Eta Antton? *Baita / Ezta*

Aditz hori trinkoa denean, **ba-** jartzen diogu :

Nik **ere** badakit.

Zuk **ere** badaukazu txakur bat.

*Ana ere dator.

4. Aditzaren ekintza bera indartu nahi bada **egin** gehitu daiteke edo zenbaitetan aditza errepikatu:

Pastelak egin ez, jan **ere egin** ditu / jan **ere jan** ditu.

Ohera joan da, bazkaldu **ere egin** gabe.

Trinkoetan: Jakin **badaki** (aditz batzuekin erabiltzen da: joan doa, eduki badauka...)

BESTELAKOAK:

- **Paragrafo bat gehitzeko:**

Esaldian ideia berri bat txertatzeko ez erabili (badaezpada): Baita ere...

Erabili honelako antolatzailearen bat: **Horrez gain, Era berean, Gainera**

Era berean, aipatu nahi nuke...

- **Egitura zenbaitetan erabiltzen dugu:** Ez ezik ... ere.

Datorren urtean Londresera **ez ezik** Brasilera **ere** joango naiz.

Arte martzialek erasorako **ez ezik** babeserako **ere** balio dute.

- **INOR ERE EZ , EZER ERE EZ...**

Ezeztapena indartzeko: ez dut inor ere ikusi. Inor ere ez.

Kontu egin gaztelaniazko: nada, nadie, nunca... euskaraz 2 edo 3 hitz direla.

* Ezer. Ezer (ere) ez.

* Inon. Inon ere ez.

Horrela **askoz ere** ederrago zaude.

Ez dut **batere lorik** egin gau osoan.

Berriz ere etorri zait...

Ez naiz hor sekula ere sartu.

Badaezpada ere, hobe ixilik egon.

Edonola ere, ni joan egingo naiz.

PRAKTIKA TXIKI BAT: Egin kontrako esaldiak inon, ezer... eta abar erabiliz.

- 1) Etxe honetan jende guztia ezagutzen dut.
- 2) Herri honetakoek zerbait esan dute.
- 3) Ni beti joaten naiz lantegi horretara.
- 4) Etxe honetan kaleko zaratak entzuten dira.
- 5) Gure herritik Bilbora beti etortzen gara autobusez.

